EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA, SOTA FAMILIAREN ETA "SOTA Y AZNAR" ONTZI-ENPRESAREN ARTXIBOA BERRERAIKI, KATALOGATU, DIGITALIZATU ETA ZABALTZEKO.**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA PARA LA RECONSTRUCCIÓN, CATALOGACIÓN, DIGITALIZACIÓN Y DIFUSIÓN DEL ARCHIVO DE LA FAMILIA SOTA Y LA NAVIERA "SOTA Y AZNAR".**

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

En Vitoria-Gasteiz, en la fecha de la firma electrónica.

**BILDU DIRENAK**

Alde batetik, Bingen ZUPIRIA GOROSTIDI jauna, ondorio horietarako helbidea: Donostia kalea 3, Vitoria-Gasteiz.

Bestetik, Leixuri ARRIZABALAGA ARRUZA andrea; horretarako, helbidea: Errekalde zumarkalea 30,

**REUNIDOS**

De una parte, D. Bingen ZUPIRIA GOROSTIDI, con domicilio a estos efectos en Vitoria-Gasteiz, calle Donostia-San Sebastián 3.

De otra, Dña. Leixuri ARRIZABALAGA ARRUZA, con domicilio a estos efectos en Bilbao, Alameda de Recalde 30,

**PARTE-HARTZAILEAK**

Lehenak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua den aldetik, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua izendatzen duen Lehendakariaren irailaren 7ko 29/2020 Dekretuaren arabera, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta hura ordezkatuz, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuak esleitzen dizkion ahalmenekin bat etorriz, erabaki honen bidez egintza honetarako eman zitzaion Gobernu Kontseiluak 2023ko aren (e)(a) n egindako bilkuran hartutako Erabakiaren arabera.

Bigarrenak, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua den aldetik, diputatu nagusiaren uztailaren 6ko 170/2023 Foru Dekretuarekin bat, foru diputatuak izendatzea xedatzen duena, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren arabera dagozkion ahalmenen arabera, eta

**INTERVIENEN**

El primero, en su calidad de Consejero de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, según el Decreto 29/2020, de 7 de septiembre, del Lehendakari, de nombramiento del Consejero de Cultura y Política Lingüística y, actuando en nombre y representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de conformidad con las facultades que le atribuye el Decreto 73/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística y de conformidad con la autorización que le fue otorgada para este acto en virtud del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día de de 2023.

La segunda, en su calidad de Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad con el Decreto Foral de la Diputada General 170/2023, de 6 de julio, por el que se dispone el nombramiento de diputadas y diputados forales, a tenor de las facultades que le son propias en virtud de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del

abenduaren 29ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 131/2020 Foru Dekretuaren bidez onartutako Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamenduan ezarritakoa garatzeko dagozkion eskumenak, Aldundiaren izenean eta hura ordezkatuz.

Territorio Histórico de Bizkaia, y de las competencias que le corresponden en desarrollo de lo establecido en el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, actuando en nombre y representación de la Diputación.

Alderdi biek, beren karguen berezko zereginak baliatuta, hitzarmen hau egiteko erabateko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

Las dos partes, actúan en el ejercicio de las funciones propias de sus cargos, reconociéndose mutua y plena capacidad para otorgar el presente convenio, y al efecto,

**AZALTZEN DUTE:**

I – Euskal Herriko Autonomia Estatutua, 10.20 artikuluak ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiola Estatuaren titulartasunekoak ez diren agiritegien arloko eskumen esklusiboa.

II.- Autonomia Erkidego Osoko Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7 a) 12 artikuluaren arabera, lurralde historikoetako foru organoek eskumen esklusiboa dute Lurralde Historikoaren titulartasuneko agiritegi, liburutegi, museo eta Arte Ederrekin eta Eskulangintzarekin loturiko erakundeetan, eta eskumen esklusibo hori haietariko bakoitzaren araubide juridiko pribatiboan erabiliko dute.

Alde horretatik, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari dagokio Bizkaiko ondare historiko eta kulturala ikertzea, kontserbatzea, zabaltzea eta kudeatzea, eta, zehazki, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoari dagokio, Kultura Ondarearen Zerbitzuaren mendekoari, haren Artxibo funtsak kudeatzea eta zabaltzea.

III.- Ekainaren 23ko 5/2022 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko dokumentu-kudeaketa integralari eta dokumentu-ondareari buruzkoak, berariaz aurreikusten du 13-1 artikuluan. “Beren eginkizuna betetzean, artxibo-sistema publikoen eginkizunak honako hauek dira”: H puntua: “Euskadiko dokumentu-ondarea osatzen duten dokumentuak etengabe kontserbatzen direla ziurtatzea eta ondare hori hedatzeko politikak garatzea”.

**MANIFIESTAN**

I - Que el Estatuto de Autonomía del País Vasco, en su art. 10.20, reconoce competencia exclusiva a la Comunidad Autónoma de Euskadi, en materia de archivos que no sean de titularidad estatal.

II.- Que conforme al artículo 7 a) 12 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, los órganos forales de los territorios históricos tienen competencia exclusiva, que ejercitarán de acuerdo con el régimen jurídico privativo de cada uno de ellos, en Archivos, Bibliotecas, Museos e Instituciones relacionadas con las Bellas Artes y Artesanía, de titularidad del Territorio Histórico.

En este sentido, compete al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia investigar, conservar, difundir y gestionar el legado histórico-cultural de Bizkaia, y en concreto, corresponde al Archivo Histórico Foral de Bizkaia, dependiente del Servicio de Patrimonio Cultural, gestionar y difundir sus fondos archivísticos.

III.- Que la Ley 5/2022 de 23 de Junio, de Gestión documental Integral y Patrimonio Documental de la Comunidad Autónoma del País Vasco prevé expresamente en su artículo 13-1 “En el desempeño de su misión, los sistemas de archivo públicos tienen encomendadas las siguientes funciones”: punto H:” Asegurar la conservación permanente de los documentos constitutivos del Patrimonio Documental de Euskadi y desarrollar políticas de difusión de dicho patrimonio”.

IV.- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Ramón Sota Zorraquin jaunarekin adostu du Sota familiaren eta “Sota y Aznar” ontzi-enpresaren artxiboa berreraikitzeko beharrezko negoziazioak egitea, familiako hainbat kideren artean banatu baitzen.

IV.- Que el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco ha acordado con D. Ramón Sota Zorraquin llevar a cabo las negociaciones precisas para reconstruir el archivo de la familia Sota y la naviera “Sota y Aznar”, que fué repartido entre varios miembros de la familia.

Helburua da familia-artxiboaren funtsen ahalik eta katalogo osoena izatea, dokumentazio guztia digitalizatzea eta, horrela, familia-artxiboaren berreraikuntza digitala lortzea.

El objetivo es contar con un catálogo lo más completo que sea posible del fondo de archivo familiar, digitalizar toda la documentación y obtener, de este modo, la reconstrucción digital del archivo familiar.

Beraz, lan hori amaitu ondoren, dokumentazioaren egungo titular bakoitzak duen fitxategiaren zatia eta fitxategiaren kopia digital osoa gordeko ditu.

De manera que, una vez terminado este trabajo, cada titular actual de la documentación conservará la parte del archivo que posee y la copia digital completa del archivo.

V.- Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saila aipatutako artxiboaren zati baten titularra da, eta komeni da ekimen hau babestea, Euskadiko dokumentu-ondarea hobeto ezagutu eta zabaltzeko.

V.- Que el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia es titular de una parte del citado archivo, y conviene en apoyar esta iniciativa, que redunda en el mejor conocimiento y difusión del Patrimonio Documental de Euskadi.

VI.- Hitzarmen hau bat dator Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluan aurreikusitakoarekin.

VI.- Que el presente Convenio responde a lo previsto en el artículo 47.2.a) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Era berean, hitzarmen hau, bere edukiaren arabera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago; izan ere, haren 6.1 artikuluak dioenez, *"Lege honen eremutik kanpo geratzen dira lege honetan edo Estatuko Administrazio Orokorrak beren artean egindako administrazio-arau berezietan arautütako kontratuen edukian sartzen ez diren hitzarmenak. Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak, unibertsitate publikoak, autonomia-erkidegoak eta Ceutako eta Melillako hiri autonomoak, toki-erakundeak, haien mendeko nortasun juridiko publikoa duten erakundeak eta nortasun juridiko pribatua duten erakundeak, baldin eta, azken kasu horretan, botere-izaera badute".*

Asimismo, este convenio se encuentra excluido como tal, y en función de su contenido, del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, dado que, tal y como señala su artículo 6.1 *“Quedan excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios, cuyo contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales celebrados entre sí por la Administración General del Estado, las Entidades Gestoras y los Servicios Comunes de la Seguridad Social, las Universidades Públicas, las Comunidades Autónomas y las Ciudades Autónomas de Ceuta y Melilla, las Entidades locales, las entidades con personalidad jurídico pública de ellas dependientes y las entidades con personalidad jurídico privada, siempre que, en este último caso, tengan la condición de poder adjudicador”.*

VIII.- Hori guztia dela-eta, bi aldeek lankidetza-hitzarmen hau sinatzea adostu

VIII.- Por todo lo que antecede, ambas partes acuerdan la suscripción del presente Convenio

dute, honako klausula hauen arabera

**KLAUSULAK**

**LEHENENGOA.- XEDEA**

Lankidetza-hitzarmen honen xedea da Sota familiaren eta “Sota y Aznar” ontzi-enpresaren artxiboa berreraikitzea, katalogatzea, digitalizatzea eta zabaltzea.

**BIGARRENA.- ALDERDIEN KONPROMISOAK**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren bitartez, agiri honen arabera, honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a. Ramón de la Sota Zorraquin titular duen Sota familiaren eta “Sota y Aznar” ontzi-enpresaren artxibo-funtsa katalogatzea, formatu irekian katalogo-fitxaren eredu bat sortuz.

b. Artxibo hori digitalizatzea, Euskadiko artxibo-sistemarako indarrean dauden arauen arabera.

c. Proiektuaren kudeaketa koordinatzea, erabilitako formatuak eta eragiketei eusten dieten metadatuen egitura automatikoki BFAra transferi daitezen, haren web-orrian integratzeko.

d. Bizkaiko Foru Aldundiaren titulartasuneko Sota fitxategiaren zatia digitalizatzea.

e. Foru Artxiboari datu-base osoaren kopia bat ematea, lotutako irudi digital guztiekin, bere web atarian zabaltzeko.

2. - Bizkaiko Foru Aldundiak, bere aldetik, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuaren menpeko Foru Artxiboaren bitartez, honako konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

a. AHEri bere titulartasuneko Sota familiaren eta “Sota y Aznar” ontzi-enpresaren artxibo-funtsaren

de colaboración con arreglo a las siguientes

**CLAÚSULAS**

**PRIMERA.- OBJETO**

El presente convenio de colaboración tiene por objeto la reconstrucción, catalogación, digitalización y difusión del archivo de la familia Sota y la naviera “Sota y Aznar”.

**SEGUNDA.- COMPROMISOS DE LAS PARTES**

1.- La Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a través del Departamento de Cultura y Política Lingüística, asume, en virtud del presente documento, los siguientes compromisos:

a. La catalogación del fondo de archivo de la familia Sota y la naviera “Sota y Aznar del que es titular Ramón de la Sota Zorraquin, con la creación de un modelo de ficha de catálogo en un formato abierto.
b. Digitalizar el citado archivo según las normas en vigor para el sistema de archivos de Euskadi

c. Coordinar la gestión del proyecto para que los formatos utilizados y la estructura de metadatos que soportan las diferentes operaciones se transfieran de manera automática a la DFB para su integración en su página web.
d. Digitalizar la parte del archivo de la familia Sota y la naviera “Sota y Aznar” de titularidad de la Diputación Foral de Bizkaia
e. Entregar al Archivo Foral una copia de la base de datos completa con todas las imágenes digitales asociadas, para su difusión en su portal web

2.- La Diputación Foral de Bizkaia por su parte, a través del Archivo Foral, dependiente del Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, asume los siguientes compromisos:

a. Entregar al AHE una copia del catálogo del fondo de archivo de la familia Sota y la naviera “Sota y Aznar” de su

katalogoaren kopia bat ematea, hitzarmen honen xede den katalogo bateratuan integratzeko.

b. AHErekin lankidetzan aritzea hitzarmen honen xede den lana garatzeko.
c. Katalogoaren eta hari lotutako irudi digitalen zabalkundea baimentzea, Dokuklik atarian

3.- Lankidetza-hitzarmen honek ez du aldeen arteko kontraprestazio ekonomikorik ekarriko, eta ez du gasturik sortuko.

**HIRUGARRENA.- HITZARMENAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA**

1.- Lankidetza-hitzarmen honen Jarraipen Batzorde Mistoa sortuko da.

2.- Batzorde Misto hori lau kidek osatuko dute gehienez: bik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatuko dute, eta beste bik Bizkaiko Foru Aldundia. Hauek izango dira kideak:

a) Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaria, eta batzordeburua izango da.

b) Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusia edo hark eskuordetzen duen pertsona.

c) Euskadiko Artxibo Historikoaren arduraduna

d) Bizkaiko Foru Aldundiko Foru Artxibo Historikoaren eta Bizkaiko Artxibo Historiko Probintzialaren Ataleko burua edo hark eskuordetzen duen pertsona, batzordearen idazkaritzaren eginkizunak beteko dituena.

3.- Batzorde horrek eginkizun hauek izango ditu:

a) Lankidetza-hitzarmen honetatik eratorritako ekintzen dinamizazio-, jarraipen- eta ebaluazio-organoa izatea.

b) Hitzarmena sinatu duten pertsonei txostenak eta proposamenak egitea.

titularidad para su integración en el catálogo unificado objeto de este Convenio

b. Cooperar con el AHE en el desarrollo del trabajo objeto de este Convenio
c. Autorizar la difusión del catálogo y las imágenes digitales asociadas en ‘Dokuklik’, portal de Archivos de Euskadi.

3.- El presente Convenio de colaboración no dará lugar a contraprestaciones económicas entre las partes, ni generará ningún gasto.

**TERCERA. - SEGUIMIENTO Y CONTROL DEL CONVENIO**

1.- Se crea una Comisión Mixta de Seguimiento del presente Convenio de colaboración.

2.- Dicha Comisión Mixta estará compuesta por un máximo de cuatro miembros, dos en representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y otros dos en representación de la Diputación Foral de Bizkaia, siendo sus integrantes los siguientes:

a) El Director de Patrimonio Cultural del Departamento de Cultura y Política Lingüística, quien ejercerá la presidencia de la comisión.

b) La Directora General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia o persona en quien delegue.

c) El Responsable del Archivo Histórico de Euskadi.

d) El jefe de la Sección de Archivo Histórico Foral y Archivo Histórico Provincial de Bizkaia de la Diputación Foral de Bizkaia, o persona en quien delegue, que ejercerá las labores de la Secretaría de la Comisión.

3.- Dicha Comisión tendrá las siguientes funciones:

a) Ser el órgano de dinamización, seguimiento y evaluación de las acciones derivadas del presente Convenio de Colaboración.

b) Elevar informes y propuestas a las personas firmantes del mismo.

c) Hitzarmena eta hartutako konpromisoak betetzen direla zaintzea eta kontrolatzea.

d) Interpretazio- eta betetze-arazoak ebaztea.

4.- Batzorde Mistoaren funtzionamendu-araubidea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean kide anitzeko organoetarako aurreikusitakoa izango da. Nolanahi ere, batzorde mistoak bere barne-funtzionamenduko arauak onartu ahal izango ditu, batzordeburuari eta idazkariari esleitutako erantzukizunak txandakatzeko aukera barne.

5.- Alderdietako batek eskatzen duen bakoitzean bilduko da batzordea, eta, nolanahi ere, urtean behin gutxienez.

**LAUGARRENA.- INTERPRETAZIOA ETA ALDAKETA**

Hitzarmen honen ondorioz sortzen diren interpretazio-arazoak eta hitzarmena aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen eztabaidak hitzarmena sinatzen duten alderdiek ebatziko dituzte, elkarren artean adostuta, Jarraipen Batzordean, hargatik eragotzi gabe alderdi sinatzaile bakoitzak bere eskumen esklusiboari esleitutako gaietan dituen ahalmenak.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluko g) letran xedatutakoaren arabera, hitzarmena aldatu ahal izango da, alderdiek hala eskatzen badute. Horretarako, dagokion gehigarria formalizatu beharko da, eta hari erantsiko zaio.

**BOSTGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA**

Lankidetza-hitzarmen honek sinatzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lau urteko iraupena izango du. Edozein unetan luzatu ahal izango da, aurreikusitako epea amaitu baino lehen, beste lau urteko aldi baterako, salbu eta alderdietako batek amaiera iragartzen badu iraungitze-data baino gutxienez bi hilabete lehenago.

c) Vigilar y controlar la ejecución del Convenio y de los compromisos adquiridos.

d) Resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse.

4.- El Régimen de funcionamiento de la Comisión Mixta será el previsto para los órganos colegiados en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, sin perjuicio de que la Comisión Mixta pueda adoptar sus propias normas de funcionamiento interno, incluida la posibilidad de alternar ejercicio de las responsabilidades asignadas a la Presidencia y a la Secretaría de la Comisión.

5.- La Comisión se reunirá siempre que lo solicite alguna de las partes y, en todo caso, al menos, una vez al año.

**CUARTA.- INTERPRETACIÓN Y MODIFICACIÓN**

Las cuestiones de interpretación que se deriven del presente convenio, así como las controversias que puedan suscitarse con motivo de su aplicación, se resolverán por las partes firmantes del convenio de mutuo acuerdo, en el seno de la Comisión de Seguimiento, sin perjuicio de las facultades de cada parte firmante de las materias atribuidas a su exclusiva competencia.

En virtud de lo dispuesto en el artículo 49, letra g, de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Convenio podrá ser modificado de común acuerdo cuando las partes lo requieran, mediante la formalización de la correspondiente adenda que se incorporará al mismo.

**QUINTA.- VIGENCIA DEL CONVENIO**

El presente Convenio de Colaboración surtirá efectos a partir de la fecha de la firma y tendrá una duración de cuatro años, pudiendo acordarse su prórroga en cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto por un periodo de otros cuatro años, salvo denuncia de cualquiera de las partes con antelación mínima de dos meses a la fecha de expiración.

**SEIGARRENA.-AZKENTZEKO ARRAZOIAK**

Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xede diren jarduketak betetzeagatik edo suntsiarazteko arrazoi hauetakoren bat gertatzeagatik:

a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.

b) Aldeak ados jartzea.

c) Hitzarmenean jasotako klausulak ez betetzea. Kasu horretan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio ez-betetzaileari, epe jakin batean bete ditzan ez-betetzat jotzen diren betebehar edo konpromisoak. Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan ez-betetzeak jarraitzen badu, hura zuzendu zuen alderdiak hitzarmena suntsiarazitzat joko du, eta beste alderdiari jakinaraziko dio.

d) Hitzarmena deusez deklaratzen duen erabaki judizialagatik.

e) Aurrekoez bestelako arrazoiren batengatik.

Hitzarmen hau azkentzen bada, likidatu egingo da, alde bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazteko, eta, horretarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Eta azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, lankidetza-hitzarmen honen bi ale sinatzen dituzte, goian adierazitako lekuan eta egunean.

**Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua /Consejero de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco**

**BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI**

**SÉXTA.- CAUSAS DE EXTINCIÓN**

El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en alguna de las siguientes causas de resolución:

a) El transcurso del plazo de vigencia del convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo.

b) El mutuo acuerdo de las Partes.

c) El incumplimiento de las cláusulas contenidas en el mismo. En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos. Si transcurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió entenderá resuelto el convenio y así se lo hará saber a la otra parte.

d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.

e) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el ordenamiento jurídico.

La extinción del presente convenio dará lugar a la liquidación del mismo con el objeto de determinar las obligaciones y compromisos de cada una de las partes, para lo que se estará a lo dispuesto en el artículo 52 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Y en prueba de conformidad con todo lo anteriormente expuesto, firman este Convenio de Colaboración por duplicado, en el lugar y fecha arriba indicados.

**Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua/Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia**

**LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA**